



**ELOSUA-PLAZENTZIAKO ESTAZIO MEGALITIKOAREN
PROIEKTUA: IKERTZEKO, KONTSERBATZEKO ETA
HAREN BALIOA AZPIMARRATZEKO**

"Dolmenen ibilbidea"

4. ekinaldia. 2016

**Gizaburua monumentuaren indusketa arkeologikoa
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA**

-2016ko urria-

SUSTATZAILEA:

DEBEGESA

IDAZKETA:

Manu CEBERIO RODRIGUEZ
Jesús TAPIA SAGARNA
Historian lizentziatuak eta arkeologoak
Historiaurreko Arkeologia Saila
Aranzadi Zientzia Elkarteak

**AURKIBIDEA**

0. FITXA TEKNIKOA	4
1. AURREKARIAK	5
2. ELOSUA-PLAZENTZIA ESTAZIO MEGALITIKOA	6
3. GIZABURUAKO TUMULUA	8
4. ESKU-HARTZEA	
5. BERRESKURATUTAKO MATERIALA	16
6. EMAITZEN INTERPRETAZIOA	18
7. GIZABURUAGAN HARTU BEHARREKO NEURRIEN PROPOSAMENA	19



0.- FITXA TEKNIKOA

PROIEKTUA	Elosua-Plazentziako estazio megalitikoaren proiektua: ikertzeko, kontserbatzeko eta haren balioa azpimarratzeko. Gizaburua tumuluaren indusketa arkeologikoa
GARAI HISTORIKOA	Neolito-Brontze Aroa
KRONOLOGIA ERLATIBOA	5.000 – 1.000 cal BC
AZTARNATEGI-MOTA	Hilobia
BABES LEGALA	<u>Elosua-Plazentziako estazio megalitiko</u> : Monumentu Multzoa (137/2003 Dekretua, EHAA 133 ZK, 2003koa) <u>Gizaburua (Soraluze)</u> : Monumentua (137/2003 Dekretua, EHAA 133 ZK, 2003koa)
INTERBENTZIO MOTA	Indusketa arkeologikoa
IKERKETA KANPAINA	IV (2016)
EGUTEGIA	2016ko urria
PROIEKTUA	2016ko apirila
ZENTROA	ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA
LAN TALDEA:	
Zuzendaritza	Jesús Tapia, Manuel Ceberio
Laguntzaile-taldea	Izaro Quevedo, Nerea Alustiza, Iñaki García, Julian Ezenarro, Juan Pedro Iñarra Javier Sudupe, Endika Zubizarreta.



1.- AURREKARIAK

2007ko azaroan, Soralezeko Udaleko Roke Akizu zinegotziak eskatuta, Aranzadi Zientzia Elkartek proiektu bat aurkeztu zuen, Elosua-Plazentziako estazio megalitikoan dauden monumentu megalitikoak kontserbatzeko eta haien balioa azpimarratzeko. Proiektu horretan, inplikazioaren beharra aipatzen zen, hain zuzen ere, Elosua-Plazentziako estazio megalitikoa dagoen mendilerroa (Karakate-Irukurutzeta) beraien lurretan hartzen duten udalerrien inplikazioa.

Inplikaturako udalek interesa azaldu zuten, proiektua DEBEGESAren bitartez bideratu zen. Ordutik, hainbat bileratan hartu du parte Aranzadik, eta horien bidez, “Dolmenen ibilbidearentzat” lan-ildo bat osatu dugu, megalitoen ikerketa, kontserbazioa, babesa eta haien balioa azpimarratzea jasotzen dituen.

Lan-ildo horri jarraiki, DEBEGESAk eskatu zion Aranzadiri zenbait jardura-proposamen egiteko. 2012an horietako bat onartu zuten: Arribiribilleta (Elgoibar-Bergara) megalittoa induskatzea eta dokumentatzea, eta haren balioa azpimarratzeko neurriak aurkeztea.

2014an, DEBEGESAk erabaki zuen Keixetako Egiya hegoaldeko megalitoen ikerketa sustatzea, Aranzadik proposatu zuen moduan.

2015ean, “Dolmenen ibilbidearen” balioa azpimarratzeko proiektuaren helburuei jarraiki, Aranzadik Atxolin Txiki II egitura megalito bat zela baieztatu zuen eta katak egin zituen gizaburuaren inguruan.

2016an, Gizaburuagan kokatzen den monumentua industu gabe dagoela kontuan hartuta, ikerketa bat egitea erabaki zen. Indusketa arkeologikoa bukatu bezain pronto, honako behin behineko txosten hau aurkezten dugu.



2.- ELOSUA-PLAZENTZIA ESTAZIO MEGALITIKOAREN TESTUINGURUA

Elosua-Plazentzia estazio megalitikoak Karakate-Irukurutzeta mendilerroan dago. Mendilerro hori ipar-mendebaldeko ertzean dagoen Karakate mendian hasi, Irukurutzeta gailurra zeharkatu eta Bergarako Agerreburu gailurreraino doa. Zehazki esanda, zenbait tontorren lerroak dira: Karakate (Kortazar eta Muneta ere deitua), Akelarre, Atxolin eta Irukurutzeta. Azken hori da lauetan altuena, baina hala ere ez da bederatziehun metrora iristen (898 m).

Mendilerroak Soraluze, Elgoibar, Azkoitia eta Bergara udalerriak zeharkatzen ditu. Karakate eta Irukurutzeta arteko zatia Soraluze eta Elgoibar udalerrietan dago.

Geologiaren aldetik ur azpiko sumendien erupzioetatik datozen materialez osatuta dago; besteak beste, kuxin-formako labak (edo "*Pillow labak*") eta arroka bolkanikoak. Hala ere, mendebaldean nagusi dira kareharri hareatsuak, tuparriak eta kareharri tupatsuak.

Mendilerroaren hegala espazioa okupatzeko eredu tradizionalaren isla dira, hau da, abeltzaintzan eta nekazaritzan jarduten duten baserri ugari daude.

Koniferoen baso-ustiapena mendi osoan nabarmena bada ere, goialdean bada oraindik balio handiko pagadi bat, bertako jatorrizko landaretzaren adierazgarri. Bestalde, larreez gain gailurretan badira garoa, otea eta txilarra.

Lekuaren balioaren adierazlea da Lurralde Antolamenduko Gidalerroetan (LAG) Interes Naturalistikoak duten Eremu izendapena edukitzea.

Ziur aski aztarnategi arkeologikoen kopurua eta tipologia handiagoa izango den arren, gaur egun, hilobi-elementuak baino ez daude inbentariatuta mendilerro honetan. Horrela, mendilerroaren goiko aldean monumentu megalitiko asko daudenez, "dolmenen ibilbidea" izenarekin ezagutzen da lekua.

Azpimarratu behar da antzinatek ezagutzen diren egiturak direla, jakin-min handia sortu dutela beti, eta kondaira asko sortu direla haien inguruan. Aire zabaleko beste aztarnategi-mota batzuk baino ikusgarriagoak izateak



herritarrengan sortzen duen erakarpenaren ondorioz, haiei buruzko historiaurreko ikerketa zientifiko asko egin dira; horregatik, desitxuratu egin da apur bat Gipuzkoako historiaurrearen inguruko ezagutza.

Mendilerro horretan dauden monumentu megalitikoek laster erakarri zuten lehenengo ikertzaileen arreta. Gehienak J.M. Barandiaranek identifikatu zituen, 1920 eta 1921 artean, eta T. Aranzadiren eta E. Egurenen laguntzarekin induskatu zituen, 1921 eta 1922 bitartean. Egitura horietako gehienak, ordurako arpilatuta zituzten altxor-bilatzaileek.

Gaur egun, Elosua-Plazentziako estazio megalitikoak 19 monumentuk osatzen dute (9 tumulu, 8 trikuharri, zista bat eta monolito bat), eta Bergara, Azkoitia, Antzuola, Elgoibar eta Soraluze udalerrietan sakabanatuta daude. Estazio megalitikoak Monumentu Multzo izendapenez Kultura Ondasun gisa izendatu zen ekainaren 24ko 137/2003 Dekretuan (EHAA: 2003ko uztailaren 8a, 133. zenbakia). Dekretu horretan zehazten dira estazioa osatzen duten elementuak eta haien babes-erregimena.



1. Irudia: inguruko megalitoak.

<http://www.aranzadi-zientziak.org/carta-megalitica>



3.- GIZABURUAKO TUMULUA¹

IZENA:	GIZABURUA
ESTAZIO MEGALITIKOA:	ELOSUA-PLAZENTZIA
ERAIKETA-MOTA:	Tumulua
UDALERRIA:	Elgoibar-Soraluze
KULTUR SEKUENTZIA:	Neolitoa/Zehaztugabeko Brontze Aroa
ERAIKINEN DESKRIBAPENA (1990ean egindakoa):	10m-ko diametroa eta 0,3m-ko altuerako tumulua da. Eraikuntzan erabilitako materialak bertako basaltoak dira.
HISTORIA:	J. M. Barandiaranek aurkitu zuen 1920an.
BABES FISIKOA:	Seinaleztatua.
BABES LEGALA:	Kultur Ondasun Sailkatua 137/2003 Dekretua (EHAA: 133. zenbakia, 2003ko uztailak 8a).
DOKUMENTAZIOA:	Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiaurreko Arkeologia Sailaren datu-basea.

BIBLIOGRAFÍA:

ALTUNA, J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDÁRIZ, A.; BARRIO, L. del; UGALDE, T.; PEÑALVER, J.: Carta Arqueológica de Gipuzkoa. Munibe 34, 1982.

ALTUNA, J.; ARMENDÁRIZ, A.; BARRIO, L. del; ETXEBERRIA, F.; MARIEZKURRENA, K.; PEÑALVER, J.; ZUMALABE, F.: Carta Arqueológica de Gipuzkoa I. Megalitos. Munibe (Antropología-Arkeología) Supl. 7, 1990.

ALTUNA, J.; BARRIO, L. del; MARIEZKURRENA, K.: Carta Arqueológica de Gipuzkoa. Megalitos. Nuevos descubrimientos 1990-2001. Munibe (Antropología-Arkeología) Supl. 15, 2002.

APELLANIZ, J. M.: Corpus de materiales de las culturas prehistóricas con cerámica de la población de cavernas del País Vasco Meridional. Munibe, Supl. 1, 1973.

ARANZADI, T.; BARANDIARAN, J. M.; EGUREN, E.: Exploración de 16 dólmenes de la sierra de Elosua-Placencia. San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa, 1922.

BARANDIARAN, J. M.: El hombre prehistórico en el País Vasco. Buenos Aires: Ekin, 1953.

¹ Megalito honen nahiz Gipuzkoako beste edozeinen informazio guztia <http://www.aranzadi-zientziak.org/carta-megalitica> webgunean dago eskura, baita Aranzadi Zientzia Elkartean, Munibe antropologia-arkeologia aldizkariaren bidez, aldian-aldian argitaratutako Gipuzkoako karta arkeologikoetan ere.



ELOSEGUI, J.: "Catálogo dolménico del País Vasco". Pirineos 9, 1953, pp. 229-378.

MUJICA, J.A.; EDESO, J.M.: Los primeros agricultores y ganaderos en Gipuzkoa : del Neolítico a la Edad del Hierro. Arkeologia 0.2. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2011, p. 276-288.



2. Irudia: Gizaburuagako monumentua.

<http://www.aranzadi-zientziak.org/carta-megalitica>

4.- ESKU-HARTZEA

Azarnategi batean lan egin behar denean 3 ardatz nagusiak jarraitu behar dira:

1. **Ikerketa:** elementua ezagutzea bermatuko du azterketak, eta, ondorioz, haren kontserbazioa eta dibulgazioa erraztuko ditu.
2. **Kontserbazioa eta babesa:** elementuaren kontserbazioa eta kudeaketa hobetuko duten neurriek sustatzea.
3. **Gizarteratzea eta balioa azpimarratzea:** udalentsako estrategia egokienak eta ekonomikoki jasagarrienak diseinatzea, ingurune hori gizarteratzeko eta haren balioa azpimarratzeko.



Premisa horiek oinarri izanda, hauek dira 2016rako proposatutako lanen helburu zehatzak:

1. Esku-hartze arkeologikoak **Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan**, aztarnategi berriak aurkitzeko (**megalitoen garaiko bizilekuak eta megalito berriak**) eta haren ezaugarri arkitektonikoak eta kronologia zehazteko.
2. Egiturak egoki kontserbatzeko, hartu beharreko neurri zuzentzaileak aztertzea eta proposatzea.
3. Elosua-Plazentzia estazio megalitikoko ondare arkeologikoa ezagutaraztea

Helburu horiek betetzeko, jarduera hau proposatzen genituen:

1. **Esku-hartze arkeologikoa Gizaburua monumentu megalitikoan, haren ezaugarri arkitektonikoak eta kronologia zehazteko.**
2. **Ikusizko miaketak, kata eta zundaketa arkeologikoak Karakate-Kurutzebakarreko eremuan kokatzen diren hainbat gune interesgarrietan: Iruia eta Sabua bereziki (BESTE PROIEKTU BATEN BIDEZ).**

GIZABURUAGAKO MONUMENTUAREN INDUSKETA ARKEOLOGIKOA:

Nahiz eta tumulua izendatuta egon, monumentuaren ezaugarriak ezezagunak ziren hasiera batean. Landaredia kendu ondoren eta monumentu megalitiko bat zela baieztatu genuenean, egituraren erdialdea ikertzea aukeratu genuen. Egitura, uste baina konplexuagoa da eta ikerketa sakonago bat egiteko aukera eskeitzen duela pentsatzen dugu. Egitura ikertzen eta berreskuratzen jarraitzeko, lan arkeologikoa eta zaharberritze lanak batera egin beharko lirateke hurrengo fase batean.



Esku-hartzea

Indusketa eremuaren gaineko landaretza eta lurra kentzea izan zen gure lehenengo lana, ezin baitziren monumentuaren ezaugarri zehatzak ikusi.



3. Irudia: Egituraren egoera lanak hasi baino lehen.



4. Irudia: Egitura ezkututzen zuten landaretza eta lurra garbitzeko lanak. Tumulua osatzen duten harriak ikusten dira. Hego-mendebaldetik ateratako argazkia.



5. Irudia: Landaretza kentzen. Hego-ekialdetik.



Landare-estaldura kendu eta eskuz bahetzen genuen heinean, lur marroia eta deskonposatzen ari zen humusaz osatutako maila bat agertu zen indusketa eremu osoan.

Behin goiko maila kenduta, monumentuaren tumulua osatzen duten harriak garbitzen jarraitu genuen. Maila honetan kuartzo zati handi batzuk aurkitu genituen.



6. Irudia: Indusketa: egituraren irudia behin landaredia kenduta. Iparraldetik ateratako argazkiak.

Egitura osatzen duten harriak bistan geratu zirenean, ezezaguna den une batean egindako zuloak ikusten ziren. Harriak lortzeko erabilitako leku bat izan dela pentsatzen dugu (inguruko eraikinak egiteko), eta horregatik tumulua oso deseginda dago.



Nahiz eta egitura egoera txarrean egon, harlauz-itxurako harri batzuk ikus zitezkeen, eta bat egituraren erdigunean hain zuzen. Horregatik, toki honetan tumulua osatzen zuten harriak kentzea aukeratu genuen, eta lan hau egiteari esker, hilobi baten aztarnak aurkitu genituen.



7. Irudia: Egituraren irudi orokorra ganbara azaldu zenean. Iparraldetik.

Hortik aurrera ganbara ikertzea aukeratu genuen, geruza desberdinak industen eta fase desberdinak aurkitzen. Momentuz, bi fase desberdinak baieztatu ditugu; azkena industu dugu, baina ganbararen hondoan beste harlauz bat azaldu da, erorita dago, eta honen azpian material gehiago azaldu da, beste fase zaharrago bat dagoela erakusten. Ikerketa akeologikoari esker material desberdin batzuk aurkitu ditugu ganbaran: giza hezurak, zeramikak, suharriak eta arkulari besoko bat.

Hilobia osatzen zuten harriek desegindak edo eror zorian daudela ikusi dugu, eta horregatik, ganbararen egoera kontuan hartuta, indusketa lanak



gelditu genituen. Ikerketa arkeologikoa jarraitu beharko litzateke, ustezko fase zaharra ikertzeko, egitura osatzen duten harlauzak nola eusten ziren ikusteko, eta finkatuta egon zireneko zuloak edo tokiak bilatzeko, baina horretarako harlauzak konpondu eta finkatu beharko lirateke.

Horregatik, ikerketa jarraitu nahi izango balitz (2. fase baten bidez), harriak finkatu eta zaharberritu beharko lirateke.



8. Irudia. Ganbara: goiko maila. Zeramikak eta hezurak azaltzen dira.



9. Irudia. Ganbara: goiko maila kendu ondoren.



10. Irudia. Ganbara: azpian beste harlauz bat azaltzen da.



11. Irudia. Ganbara: azpian dagoen harlauza.

5.- BERRESKURATUTAKO MATERIALA

Lehen aipatu dugun bezala, ganbararen barruan material desberdinak aurkitu genituen. Alde batetik, gutxienez hiru ontzi desberdinen zeramika zatiak. Beste alde batetik, harrizko tresna batzuk jaso genituen, horien artean arkulari besoko bat. Gainera, ia ehun giza hezur zatiak aurkitu ditugu, eta horietako batzuk erreak daude. Materiala ikertzen ari gara oraindik eta saiatuko gara datazioak lortzen, monumentu erabileraren kronologia zehatza lortzeko.



12. Irudia. Jasotako zeramika batzuk.



13. Irudia. Jasotako suharri bat.



14. Irudia. arkulari besokoen zati bat.



15. Irudia. Ganbaran jasotako giza hezur batzuk.



6.- EMAITZEN INTERPRETAZIOA

Eskuhartze-arkeologikoari esker Gizaburuako monumentu megalitikoaren ezaugarri orokorrak eta kontserbazio-egoera ikusi ahal izan ditugu.

Ikertutako egitura trikuharri bat dela baieztatu dugu, eta oso interesgarria da; gutxienez bi fase ikusten dira. Azken fasea ikertu dugu (goian dagoena, Brontze arokoa?), baina bestea, zaharragoa da gure ustez (behean dagoena, Neolitokoa?) eta industu gabe dago oraindik, ganbara egoera txarrean dagoelako. Indusketa arkeologikoari esker ganbara aurkitu dugu eta monumentuaren kronologia ezagutzeko material arkeologiko garrantzitsua azaldu da, baina gure ustez hilobiaren ikerketa jarraitu beharko litzateke.

Kontserbazio-egoeraren aldetik, hilobia osatzen zuten harriek desegindak edo erortzeko zorian daudela kontuan hartuta, ikerketa arkeologikoa jarraitzeko harlauzak konpondu beharko lirateke. Horregatik, ikerketa jarraitu nahi izango balitz (2. fase baten bidez), harriak finkatu eta zaharberritu beharko lirateke indusketa lanarekin batera.

Beste alde batetik, estazio megalitikoaren egitura gehienak ezagunak izan arren, beraien ezaugarriak ez direla ondo ezagutzen erakutsi dugu. Gizaburuagako megalitoa ondo ezagutzeko, zaintzeko eta babesteko, ikerketa arkeologiko sakon bat egin beharko litzateke, eta horregatik proiektua jarraitzeko asmoa daukagu. Gainera aukera on bat da trikuharri baten ganbara berreskuratzeke, inguruko hilobi bakarra izango litzateke, besteak desegindak daudelako.



7.- GIZABURUAGAN HARTU BEHARREKO NEURRIEN PROPOSAMENA

Gure proiektuan esaten genuen beharrezkoa iruditzen zitzaigula esku-hartze arkeologiko bat egitea, ezaugarriak zehazteko eta beharrezko neurriak ezarri ahal izateko.

Beste alde batetik, lehen komentatu dugun bezala, aztarnategi batean lan egin behar denean honako ardatz hauek jarraitu behar dira: ikerketa, kontserbazioa eta babesa, eta gizarteratzea eta balioa azpimarratzea. Premisa horiek jarraituz, honako helburu zehatza hauetan oinarritu gara:

-Proiektuaren helburu zehatzak:

1. Gizaburuagako monumentu megalitikoaren ikerketa arkeologikoa bultzatu.
2. Kaltetutako zatiak berreskuratu.
3. Megalitoa babestu.
4. Historiaurrea, megalitismoa eta arkeologia jendarteratzea.
5. Herritarrak ondarea babestera eta kontserbatzera urbiltzea.
6. Ondarearekiko begirunea sustatzea.

Helburu horiek guztiak eta orain arte egindako ikerketen emaitzak kontuan hartuta, neurri batzuk hartu beharra ikusten dugu, kaltetutako eta aztertutako megalitoak berreskuratzeko, kontserbatzeko eta balioa emateko:

- **Monumentua babestu hesi baten bidez**, lursailetik ibiltzen diren animalien aurrean, megalitoa ez kaltetzeko. Beste toki desberdinetan ikusi dugunez, animaliek hatz egiten dute (zaldiak eta behiak bereziki) harrien kontra eta megalitoak osatzen dituzten harlauzek botatzen edo puskatzen dituzte. Beste toki desberdinetan egin den bezala (Aralarko Ondarren edo Urnietako Mulisko Gainan), hesiak monumentu osoa babestu behar du, baina jendea sartzea posible izan behar da.
- **Ikerketa arkeologikoaren 2. fasea egitea, indusketa arkeologikoa** jarraituz, hilobiaren ikerketa bukatzeko, ganbara osatzen duten harlauzak nola eusten ziren ikusteko, eta finkatuta egon zireneko zuloak edo tokiak bilatzeko. Gero **egituraren topografia eta**



ortoargazkia egin beharko lirateke trikuharriaren ezaugarriak ondo erregistratzeko.

- **Ganbararen harlauzak zaharberritu**, harlauzak konpondu eta finkatu behar dira, ikerketa arkeologikoaren 2. fasea aurrera egiteko eta egitura berreraikitzeke.
- **Monumentu megalitikoa berreraikitzea**, hau da, gaur egungo egoera ikusita, jatorrizko egoera berreskuratzea (ganbara irekita utzita), bide batez, herritarrek haren ezaugarriak ikusi ahal izateko.

Donostian, 2016ko urriaren 20an.

Sin.: Jesus Tapia

Sin.: Manu Ceberio

Historiaurreko Arkeologia Saila

Aranzadi Zientzia Elkartea